Donostia, 2022ko apirilaren 12 a

## 53/22 PRENTSA OHARRA

## DBUSEK "HANDITAN ZER IZANGO NAIZ?" IZENEKO KANPAINA ABIATU DU, GENERO ROLIK GABEKO HAURTZARO BATEN ALDE

**Apirilaren 15ean Haurren Eguna** izango dela eta, Dbusek kanpaina bat abiarazi du **herritarrak lanpostuei lotutako genero rolen inguruan sentsibilizatzeko eta haurrei rol horiek ez transmititzeak duen garrantziaz ohartarazteko**.

"Handitan zer ~~izan nahi dut~~ izango naiz?" leloarekin, haurtzaroan ateak irekitzeak duen garrantzia transmititu nahi da, emakumeei edo gizonei dagozkien lanen gainean dauden **aurreiritziak eta oztopoak ezabatuz** eta baldintzarik gabe aukeratzeko aske izan daitezela sustatuz.




Kanpainan erabiliko diren argazkietan **Dbuseko benetako langileak agertuko dira, beraien egiten duten lana seme-alabei, ilobei eta bilobei harrotasunez erakusten, haientzat erreferenteak izateko**, izan ere, garrantzitsua da berdintasunean heztea, ez soilik esanda, baizik eta eredu izanda ere.

Kanpainan, konpainiako langileek, gidariek, tailerreko mekanikari batek eta ikuskatzaile batek parte hartu dute, egunerokoan tradizionalki maskulinoa izan den sektore batekin lotzen diren genero oztopoak ezabatzeko lan egiten duten langileak, alegia.









Azken hamarkadan berdintasunaren arloan egindako lanari esker, Dbuseko plantillaren %12 emakumeak dira dagoeneko, 57 gidari eta 2 ikuskatzaile, zehazki.

Dbusek Emakundek ematen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen zigilua dauka 2010az geroztik, enpresan emakumeen eta gizonen arteko **berdintasunaren alorrean aurrera egiteko hartutako konpromisoagatik eta egindako lanagatik** eta horrela eremu soziolaboralean ekimen berriak sustatzeagatik. Era berean, BAI SAREAn parte hartzen du, Konpainiaren langileen garapena bultzatzen duten jardunbide egokiak sustatzeko.

Kanpaina hiriko markesinetan, Dbusen webgunean, sare sozialetan eta autobusen barruko pantailetan egongo da ikusgarri.

Informazio gehiago behar izanez gero, kontsultatu www.dbus.eus helbidean edo deitu 943 000 200 telefono zenbakira.

d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN EUREN
ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN EUREN
ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN EUREN
ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN EUREN
ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN
EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK
GABE ERABAKI DEZATEN.



d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN
EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK
GABE ERABAKI DEZATEN.




d·bus
HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN
EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK
GABE ERABAKI DEZATEN.
handitan ~~zer~~
~~izan nahi~~
~~dut~~?
Zer izango naiz?
JON ANDER CARVAJAL,
DBUSEKO GIDARIA,
ENARA ALABAREKIN
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

d·bus

HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN
EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK
GABE ERABAKI DEZATEN.




d·bus
HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN
EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK
GABE ERABAKI DEZATEN.
handitan zer izan nahi dut?
zer izango naiz?
RAKEL ARES,
DBUSEKO IKUSKATZAILEA,
LOLA ALABAREKIN
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN


d·bus
HEZI DITZAGUN AUKERA BERDINTASUNEAN
EUREN ETORKIZUNA ASKE ETA AURREIRITZIRIK
GABE ERABAKI DEZATEN.
handitan zer
izan nahi
dut?
zer izango
naiz?
EURO 6
ANTICONGELANTE
ANDER OTAEGI,
DBUSEKO MEKANIKARIA,
MAITE ALABAREKIN
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN